
PFAS substantziekin uste baino kutsatukoak daude mundu osoko urak

Ur-baliabideen zati handi bat PFAS substantziekin kutsatua dago, eta, kasu askotan, segurtasun-atalaseak gainditzen dira. Ondorio horretara iritsi dira, mundu osoko azaleko eta lurpeko urak aztertuta, [Nature Geoscience aldizkarian argitaratu duten ikerketa batean](#).

PFAS izenaren azpian, substantzia-talde zabal bat dago: 14.000 konposatu baino gehiago. Asko erabiltzen dira industrian eta ohiko kontsumoko produktu askotan; hala nola, sukaldeko tresna itsasgaitzetan, elikagaientzako ontzietan eta ehun iragazgaitzetan. Substantzia horiek oso iraunkorrak dira ingurumenean, eta toxikoak eta osasunerako arriskutsuak izan litezke. Horregatik, zenbait herrialdetan PFAS batzuen erabilera eta ekoizpena debekatuta dago, eta herrialde askok edateko urak izan ditzakeen PFAS-mailak erregulatuta dauzkate.

Ikerketa horretan, PFAS-mailak neurtu dituzte mundu osoko azaleko uren 12.000 laginetan eta lurpeko uren 33.900 laginetan, eta ikusi dute ehuneko handi batek erreferentziazko balioak gainditzeko dituela.



Bestalde, ikerketak agerian utzi du PFASak monitorizatzeko egungo programek gutxietsi egiten dutela substantzia horien poluzio-maila, programa horietan aztertu ohi den PFAS-kantitate mugatua dela eta. ●

Esne Bidearen erdiko zulo beltzak eremu magnetiko ahaltua du



Sgr A* zulo beltzaren irudia argi polarizatuz. ARG.: EHT taldea.

Duela bi urte, [Sagittarius A* \(Sgr A*\) Esne Bidearen erdian dagoen zulo beltzaren lehen irudia](#) aurkeztu zuen Event Horizon Telescope (EHT) nazioarteko proiektuak. Aurretik, 2019an, zulo beltz baten lehen irudia erakutsi zuen talde berak, [M87* zulo beltzarena](#), hain zuzen. Argi polarizatuz ere aztertu zuen zulo beltz hori, eta, horren bidez, [eremu magnetiko indartsua zuela frogatu zuten 2021ean](#). Orain, Sgr A* [aztertu dute argi polarizatuz](#), eta hark ere antzeko eremu magnetikoa duela ikusi dute. Horrenbestez, litekeena da hori izatea era horretako zulo beltzen ohiko egitura.

Aurkikuntza esanguratsua da; izan ere, Sgr A* M87* baino mila aldiz txikiagoa da, eta hark baino mila aldiz masa gutxiago du. Eta bietan ikusi dute eremu magnetiko indartsuak dituztela espiralean bilduta, eta zulo beltzaren erdialderantz itzultzen dutela zulo beltzak berak igortzen dituen materia- eta energia-zorrotadak. ●